

**NAHIKO BERDINTASUNERAKO, ERRESPETURAKO ETA BIOLENTZIA-EZARAKO  
HEZKIDETZA PROGRAMAREN AMAIERA / CLAUSURA DEL PROGRAMA  
COEDUCATIVO PARA LA IGUALDAD, EL RESPETO Y LA NO-VIOLENCIA **NAHIKO****

2019-06-03 Eukalduna Jauregia-Palacio Euskalduna 03-06-2019

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Emakunde eta Hezkuntza arduradunok, Ikastetxeetako arduradun, irakasle eta ikasleok, egun on. Nire eskerrik beroenak, lehenik eta behin, Emakunderen NAHIKO programan parte hartu duzuen ikastetxe guztiei.

Berdintasunak norberaren inplikazioa eskatzen du. Berdintasunak lana eta ahalegina eskatzen ditu. Ez da berez, bakarrik, iritxiko. Ondo dakigu berdintasuna lortzeko bidea ez dela beti erraza izaten, baina bide hori egiteko borondatea eskertzen eta aitortzen dizuegu. Gaur zuen EKARPENAK eskertzen ditugu.

Agradecemos vuestra implicación y vuestra aportación. La igualdad de mujeres y hombres es un camino difícil. Lo estáis transitando y lo estáis haciendo bien. Nuestro objetivo es que este programa y este acto sean un revulsivo para seguir caminando con paso firme y decidido.

Gaur hemen erakutsi diguzuenarekin esan dezakegu ondo hornituak eta prestatuta zaudetela gure gizartean berdintasuna praktikan jartzeko eta zabaltzeko.

NAHIKO programaren bitartez ikasi duzue berdintasunak onurak dakarziola gizarteari. Berdintasuna giza eskubide bat izateaz gain, gure gizartea hobetzeko tresna bat dela, indarkeriaren kontrako antidoto bat eta berrikuntzarako aukera.

Todo es importante: la igualdad es un derecho humano y, a su vez, la igualdad es un camino para mejorar la sociedad. La igualdad es un antídoto contra la violencia y es una oportunidad para innovar, para seguir mejorando nuestra vida en común. Todo avance en la igualdad es positivo porque beneficia a la sociedad en su conjunto.

Oso garrantzitsua den zerbait ikasi duzue. Ikasi duzue orain eta etorkizunean nahi duzuen izan zaitezketela, neska ala mutil izateak ezin dituela mugatu inoren aukerak.

Zuen aurrean etorkizun zabala daukazue, nahi dituzuen ikasketak aukeratzeko, nahi dituzuen kirolak egiteko, nahi duzuen modukoak izateko sexuaren araberako mugarik gabe.

Berdintasuna, giza eskubideak eta errespetua. Horra hor gure gizarteak behar dituen hiru balore garrantzitsu, NAHIKO programarekin landu dituzuenak.

Eskerrak bihotzez balore hauetan oinarritutako gizartea eraikiko duzuelako.

Nuestro agradecimiento y reconocimiento también al profesorado y a los Centros. Hemos compartido la evaluación del programa NAHIKO y el avance es significativo. Avanzamos gracias a vuestro compromiso y determinación; también gracias a vuestra capacidad pedagógica para trasladar a las y a los alumnos las ventajas de una convivencia en igualdad.

Zuen lana funtsezkoa da. Ikasleei mundua zelakoa den erakusteko ardua handia daukazue eta mundua hobetzeko zer egin dezaketen ere iradokitzeke.

Zuentzat ahalegina suposatzen du egunerokoan berdintasuna kontuan izatea eta irakastea. Baina badakizue lana eskatzeaz gain, ematen dituen fruituak ere balio handikoak direla. Horrela nabarmentzen dute NAHIKO programari buruz egindako ebaluazioak.

Oso emaitza onak eman ditu orain arte eta espero dugu aurrerantzean ere horrela jarraitzea. Egindakoa ez da nahikoa eta NAHIKO programa zabaltzen eta indartzen jarraitu behar dugu.

Eskerrik asko guztioi eta zorionak, berdintasunean eta berdintasunaren alde, egindako lanarengatik eta ekarpenarengatik, egun ona izan.